



Euskara atxilotuta

Etxetik korrika egitera atera eta atxilotuta bukatu. Guztia, euskaraz ez zekiten bi ertzaini euskaraz egiteagatik. Atxilotuak, gainera, ertzainek bere aurka jarritako salaketa bati aurre egin beharko dio. Gertaerak hautsak harrotu ditu.

Aitziber Iartzu

Urtarrilaren 18an, beste askotan bezala, Bittor Hidalgo, korrikaldi saioa egin ostean, Lau Haizetako etxera bueltan ziho-

an. Baina, ez zen etxera iritsi espero zuen orduan. Hildagok azaldutakoaren arabera, etxerako bidean zihoala, atzean auto bat sentitu zuen, eta bidea estua denez,

besoa luzatu zuen derrigorrezko tartea gorde zezan. Autoa, ertzain-autoa, Hildagoren parean jarri zen, eta ertzainek gelditzeko keinua zergatik egin zien galdetu zioten korrikalariari, gaztelaniaz. Honek segurtasun tartea gordetzeko keinua besterik ez ziela egin azaldu zien, euskaraz, eta korrika jarraitu zuen. Ertzain batek "segi korrika, pailazo hori..." esan omen zion, gaztelaniaz. Hori zergatik esan zuen

Badira kexa gehiago

Euskaraz hitz egiteagatik norbait atxilotzea ez da oso arrunta, baina arazok izatea ohikoa da. Arazo hauetako askok norberaren eremutik haruntzago ez dute oihartzunik izaten, eta beraz, oso zaila da azterketa erreala egitea. Hala ere, behatokiak hizkuntza-urraketen inguruko kekak bildu ditu, eta bertan, besteak beste, Donostian taz-poliziarekin izandako zenbait arazo ageri dira. Hauetako batean, Antiguako ertzain-etxean izandako gertaera bat biltzen da: herritar bat

bitan joan zen Antiguako ertzain-etxera; ezin izan zuen zerbitzua euskaraz jaso eta gaztelaniaz egiteko eskatu zioten. Ertzain-etxera joan behar zuela azaltzen zuen jakinarazpena ere gaztelaniaz hutsez jaso zuen.

Beste herritar bat Nortasun Agiria egitera joan zen Espainiako Poliziaren komisaldegira, eta inprimakia euskaraz bete zuen. Inprimakia ez zioten onartu eta gaztelaniaz bete behar izan zuen.

